

Odol hotzekoak

Jakina da sugegorriek maite dutela eguzkitan egotea. Topatzen dute txoko bat, jartzen dira bertan geldigeldi, eta halaxe egoten dira suge arrek paella prest dagoela esaten dieten arte.

Sugegorri on guztiek bezala, Terek ere ezkata distiratsuak erakutsi nahi ditu uda aurretik, errekaduak egitean edo jai eguerdiko txuria hartzean. Horregatik alokatu du aurten Begoren alboko apartamentua Saloun. Gogotsu dago, aspaldian ez baitu Begorekin oporraldirik igaro eta ahizpak oporraldi lasai eta etxekoaia agindu dio.

Bittor eta Joxe Martin maletak autoan sartzen ibili ostean hasi da erritua. Begok Caribe 2002 jartzen duen CD-a sartu du irakurgailuan eta "Hay mete-mete"-ren erritmoan sorbaldak dantzan jarri ditu, ahizpari beharrezko instrukzioak emanez.

–Aitu, Tere, joango naun esplikatzan hondartzan ikusiko dinagun jendea. Urte asko ditun, badakin, eta ezagun asko zauzkanat– Suge-ahoa okertu du Terek, benetakoa ez den irribarrean. Ez dauka suge ezezagun bazter-nahastaleekin egoteko gogo handirik–. Venus plazan zagon gure apartamentua eta handik gertu, Bellomar hotela. Ez diton gelako txartelik eskatzen gosarietan eta behin baino gehiagotan joan gaitun Bittor eta biok bertara. Ez hondartzan ezer komentatu gero, e?

–Ez, noski– Begok azalpenak ematen jarraitu du geratzen zitzaizkien lau orduetan, Bittor eta Joxe Martinek Realaren partidua sakelakotik jarraitzen duten bitartean. Noski, Begok ez baitie Caribe 2002 partidu ziztrin harengatik ordezkatzan utzi.

Heldu dira. Bittorrek autoa Edifici Bartolo aurrean gel-ditu eta traste guztiak atera dituzte. Hor hasi da errituaren maila goren, gosaldue ostean hondartzara joan direnean.

Aurpegiak garbituta eta buruan mototsa eginda –sugeek ere adats ederrak baitituzte– beste batzuk dira Bego eta Tere. Zer esanik ez, soinekoak buru gainetik atera dituztenean. Terek ondo gora igo du bikinia, ezkata artean nabari zaion sabelaldea ezkutatzeko. Bego erregimenean dago, ordea, eta harro-harro jarri da zutik hondartzan. Senarrak agudo desagertu dira, barizeentzako ona dela eta ibiltzera joanda.

Zutik dirau Begok, erne, gotorlekutik bere suge begiekin hondartza ikuskatuz. Irribarrea zabaldu zaio aurpegian eta besoa luzatu du, hondarretan arrastaka datorren suge berria agurtuz. Akabo bakea. Zapia dauka buruan eta zartaginean asko frijitzen duenaren tripa. Begoren instrukzioak, bestea iritsi artean:



Ilustrazioa:
Cristina Fernandez Blanco

Amaia Telleria

–Zaragozako da, Trini, alaba eta senarrarekin etortzen da.

Besarkada estuan lotu dira suge biak, isatsak kiribilduta. Negua zer moduz joan den, alaba zelan, zein ondo orain Bittor jubilatuta...

–Hau Tere da, ahizpa.

Trinik begirada zuzendu dio eta besarkatzera hurreratu zaio.

–A, bai! Zu zara alaba futbolaria duena –Terek irribarre egin dio, lotsatuta–. Kroketa gozoak egiten dituen?

–Bueno, hala famatu naute!

–Aizu, olioarekin zikindu zaizu bikini!– hiru begi pare jausi dira Tereren bikinira, bat-batean. Bellomar-eko tostada haren olio! Trini hura garbitzeko egin dezakeenaz aholkuak ematen hasi zaio, geldiezinako hitz-jarioan.

Azkenean, tutoriala amaitutzat emanda, bazkaltzeko egin duen alberjina beteen errezeta azaltzeari ekin dio, aulkia harean finkatuz. Tereren garunak ezin du hainbeste informazio prozesatu. Hitz eta hitzen artean plastikozko tapera atera du Trinik eta sagar gorri zatitxoak eskaini dizkie. Eskaini baino, jatera bultzatu ditu, bitamina asko baititu eta garrantzitsua omen delako egunero sagar bat behintzat jatea. Kontakizuna bere horretan gelditu da ipurdi bistan datorren suge gaxte bat itsasertzetik pasatzen hasi denean. Hiru buruek jarraitu dute mugimendu sinkronizatuan, ezkerretik eskubira, oraindik ahoan sagarra murtzikatzen ari direla.

–Ene, a ze tipoa neska harek...– Begok haizea eman dio bere buruari abanikoaz.

–Ez al zen Rosanarena? Zaharrena? –Trinik zapia ondo jarri eta altxatu egin da eserlekutik, gaztea ondo ikusteko.

–Entzun al dun honena?

–Izango zuen haurra, ezta?

–Bai, baina ez omen dun senarra haren aita!

Bego eserlekuan mugitu da eta betaurrekoak altxatu ditu:

–No fastidies! Zein ba?

–Festan ezagututako bat, Reusekoa.

Begok nola jakin duten galdetu dio eta Trinik azalpenak eman, hil ala biziko kontua balitz bezala. Eta ez dute eten guztia ondo zukutu arte. Terek batetik bestera eraman du burua, istorioko hariak lotu nahian.

–Aizu, eta Sole? Aurten ez omen dun etorri ere egin, depresioak jota. Esaten dute alaba pornografian sartuta dabilela... – ingurura begiratu du Begok, ahapeka hitz eginez.

–Pornografia? Jesus! –aitaren egin du Trinik, baina ez du ahotsaren bolumena jaitsi – ikusita nola ibiltzen zen: ope-

ratutako titiak, ezpain handi haiek...

–Hara! Rosana–. Triniri belaunean kolpetxo eman, agur egiteko aurpegia jarri du berriz Begok, eta buztana gehiegizko mugimenduan dantzan dakarren sugeari erreparatu dio Terek. Pareoa dakar gerrian lotuta, agian ezkatat zulatzen dizkion zelulitisa ezkutatzeko. Ezpainak gorriz margotuta dakartza eta lastozko txapel modernoa.

–Rosana, guapa! Zer moduz? – Bi musu eman dizkiote sugeari eta Tere aurkeztu, baina Rosanak ez dio gehiegi begiratu, arduratuta baitabil bere biloba ederraren argazkia sakelakoan bilatzen. Hori bai, Reusekoaren istoriorik ez du aitatu ere egin. Ume eder eta zintzoa, ezagutu duen formarena.

Iritsi denetik hitz egiteko aukera gutxi izan dute Terek, Begok eta Trinik berak, Rosanak haurraren dohain guztiak azaldu ostean, margotu berri dituen ezkatat erakutsi baititu, Bartzelonako lokalik onenean egin dizkietenak. Ondoren, bart gauean afaltzera joan zen jatetxea zehatz-mehatz deskribatu du; garesti samarra, baina sekula ezagutu duen dotoreena. Trinik eta Begok baiezko keinuak egiten dizkiote eta tarteka galderaren batekin jarraitzen dute elkarriketa. Zerura eraman ditu begiak Terek Begoren telefonoa jotzen hasi denean.

–Bai? Bale, bai. Bagoaz – Begok mugikorra eseki eta poltsora bota du, zutituz-. Gizonak dira, prest dagoela paella. Bihar hemendik ibiliko gara, nahi baduzue.

Tereren buruko sirena martxan jarri da: emergentzia. Irribarre edulkoratuaz altxatu eta aulkia hondarretan utzita bi sugeek etxerako bidea egin dute, arrastaka. Hasperen egin du Terek, irrikitan dago ezagutzeko geratzen zaizkion suge guztiak hondartzan topatzen joateko. Zorionez, eguzkipeko saio asko izango ditu oraindik, odol hotzakoak baitira. Eta Jakina da odol hotzakoek eguzkipeko txutxu-mutxuak zein gustuko dituzten.

bitxa

Amaia Telleria Mujika

Idiazabalen jaioa, 1993an. Lehen Hezkuntzako irakasle ikasketak amaitu berri, benetan irakasle izaten ikasteko behar zuen tokietan dabil lanean: eskoletan. Idazketa aspaldiko grinari helduta, Bergarako Idazle Eskolan praktikan jartzera animatu zen iaz.